



G O R L I Z E L I Z A T E A R E N U D A L A
A Y U N T A M I E N T O D E A N T E I G L E S I A D E G O R L I Z

IRAGARKIA

GORLIZKO UDALEKO HERRITARREI ARRETA EMATEKO ZERBITZU BERRIAREN IZENA AUKERATZEKO IDEIA-LEHIAKETAREN OINARRIAK ETA DEIALDIA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2007ko martxoaren 20ko bilkuran onartu egin zituen Herritarrei Arreta emateko Zerbitzu berriaren izena aukeratzeko ideia-lehiaketaren oinarriak, eta erabaki zuen dagokion deialdia egitea.

Gorniz, 2007ko apirilaren 18a.

ALKATEA

Patxo Igartua Ansoleaga



GORLIZKO UDALEKO HERRITARREI ARRETA EMATEKO ZERBITZU BERRIAREN IZENA AUKERATZEKO IDEA-LEHIAKETAREN OINARRIAK

Lehiaketa hau irekia da, eta bere helburua da Gorlizko Udalak sortutako zerbitzu berri bat —herritarrei arreta emateko zerbitzua— identifikatuko duen izena aukeratzea. Aukeratze-lanetan epaimahai batek jardungo du.

1.- Erakunde kontratatzailea.

Gorlizko Udala.
Helbidea: Elizako plaza z/g
48630 Gorliz – Bizkaia
Telefona: 94 677 01 93
Posta elektronikoa: udala@gorliz.net

2.- Lehiaketaren helburua.

Lehiaketa honen helburua da Gorlizko Udalak sortu berri duen zerbitzu berri bat —herritarrei arreta emateko zerbitzua— identifikatzeko izena aukeratzea.

3.- Zehaztapen teknikoak:

1. Neurriak: zerbitzua identifikatzeko izenak, nahitaez, hitz batekoa izan beharko du.
2. Hizkuntza: euskara
3. Gaia: herritarrei arreta emateko zerbitzua.

Parte-hartzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du.

Erakunde antolatzaileak ebaluazio eta jarraipen-jardunak egin ahal izango ditu proiektu irabazlea zuzen abiatuko dela bermatzeko. Horregatik, bada, ideia irabazlea aurkeztu duenak erraztu egin beharko du jardunok egitea.

Irabazleak proiektua garatzen denean aldaketak egin nahi baditu, aurretiaz adostu beharko du lehiaketaren erakunde kontratatzailearekin.



4.- Hartzaileak.

Hala nahi duten 16 urtetik gorako pertsona guztiek aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak, norbanaka zein enpresa baten barruan txertatuta. Nolanahi ere, ezinbesteko baldintza izango da sartuta ez egotea Herri Administrazioen kontratazioari buruzko legerian ezarritako inolako bateraezintasun-kasutan.

5.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Proiektuak egilearen inolako daturik gabe aurkeztuko dira. Leloa edo egilearen goitizenen bat baino ez da jasoko bertan.

Bi gutun-azal aurkeztu beharko dira:

1. **A gutun-azala:** zerbitzurako proposatzen den izena zehaztuko da, eta horrekin batera dagokion azalpena.
2. **B gutun-azala:** honen barruan, proposamen-arduradunaren datuak jarriko dira: adibidez, izen-abizenak, telefono-zenbakiak, egilearen edo enpresaren helbide osoa eta lanbide-curriculumak.

Gutun-azal biak proiektuaren leloarekin edo goitizenaekin baino ez dira identifikatuko, eta, noski, dagokion letrarekin (A edo B).

6.- Aurkezteko epea eta lekua.

Proposamenak Gornizko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik 15 eguneko epearen barruan.

7.- Epaimahaia.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, lehiaketaren epaimahaiak aurkezten diren lanak baloratuko ditu, gehienez 10 eguneko epearen barruan. Baloratzeko irizpideek honako alderdi hauek hartuko dituzte oinarritzat:

1. *Noraino egokitzen zaion izena zerbitzuari: %50.*
2. *Gornizko Udalarekin eta udalerriarekin noraino den harmoniatsua eta koherentea. %50.*



G O R L I Z E L I Z A T E A R E N U D A L A
A Y U N T A M I E N T O D E A N T E I G L E S I A D E G O R L I Z

Epaimahaiaren osaera:

1. Patxo Igartua Ansoleaga, Gornizko Udaleko alkatea.
2. Juana Gorostiza Fdez. de Villarán, idazkaria.
3. Jone Gurrutxaga Goti, Gornizko Kultur Etxeko zuzendaria.
4. Jose Manuel García Toxo, udaltzainburua.
5. Ramón Andraka Bilbao, delineatzailea.
6. Itxaso Etxebarria Bilbao, HAZko arduraduna.

Epaimahaiak dagokion erabakia hartuko du, eta, horretarako, nahikoa izango da bere kideen gehiengo soila. Hainbanaketarik gertatzekotan, Gornizko alkatearen botoa kalitate-botoa izango da. Epaimahaiaren erabakia gora jo ezina izango da.

Epaimahaiak erabakia hartu arte sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena izango du.

Interesatuak aurkezten dituzten proposamenak jardun-oinarrietara egokitzen ez badira edo horretarako sortutako epaimahaiaren ebaluazioa gainditzen ez badute, Gornizko Udalak beretzat gordetzen du lehiaketa eman gabe uzteko eskubidea.

8.- Sariak

Irabazten duen proposamenak 600 €ko saria jasoko du.

Gornizen, 2007ko martxoaren 20an.